

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen formakuntzen katalogoa

2022 urtarrila ▷ ekaina

Ikastaldiak jarraiki, etxaldean bere praktikak hobetetzeko
eta gaitasunak zabaltzeko, laborari gisa



► SAR HITZA

2005eko urtarrilaren 15ean sortu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbara. 1901 legedian oinarritzen den laborantza-garapenerako elkarte da. Laborantza herrikoi eta iraunkorraren alde lan egiten du, laborantza eta laborarien zainketan eta tokiko garapenaren alde.

Bere proiektuaren baitan, EHLGk laborarieri zuzenduak diren formakuntzak proposatzen ditu. Horien xehetasunak 2022ko lehen sei hilekoko katalogo honetan aurkituko dituzu.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK

Formakuntzen agenda gure webgunean eskura daiteke : **www.ehlgbai.org**. Beharrez, dokumentua mailez edo postaz bidaltzen ahal dautzugu.

Baliteke finkatu datak, tenoreak eta lekuak aldatzen ahal direla.

Izen emaita gutti gora behera formakuntza baino 15 egun lehenago idekia da.

Nola egin ?

Zure izena linean eman dezkezu, gure webgunean : **www.ehlgbai.org**
edo telefonoz : 05 59 37 18 82

Baliabide pedagogiko eta teknikoak :

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) talde profesionalak hainbat ekintza martxan jarri ditu laborari, desmartxa kolektibo eta elkargoen zerbitzuko. EHLGko formatzaileek proposatzen dituzten formakuntzak beren gaitasun tekniko eta pedagogikoetan oinarritzen dira, tokian tokiko esperientziak indarturik.

Gai zehatz batzuentzat, kanpoko mintzalariak jinarazten ahal ditugu. Horien goi mailako gaitasunak heien esperentzia eta formakuntzan oinarritzen dira.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako baliabide tekniko guziak mobilizatuak izan daitezke formakuntza saioa baldintza hoberenetan iragaiteko.

Segipen pedagogikoaren eta ebaluazio modalitateak :

- Formakuntza bukaeran, formatzaileak taldeak lortu ezagutzak ebaluatuko ditu.
- Formakuntza bukaeran, parte hartzaile bakoitzak satisfamendu fitxa bat beteko du

Publikoa eta betebeharrak :

- Norentzat : VIVEA urtesaria pagatua duten Euskal Herriko laborarieri zuzendua
- Finantzamendua : VIVEA-k bere gain hartuko du urtesaria ordaindu duten laborarientzat
- Aitzinetik bete behar diren baldintzak : parte hartzeko ez da lehenago bete behar den baldintzarik formazioari doakionez. Aldiz, proposatu formakuntza batzuen kasuan lehenago bete behar diren baldintza batzu galdeginak izanen dira (ezagutza tekniko edo estatusari lotuak...)

Ahalmen urritasun egoeran diren pertsonendako

- Formakuntza lekura sartzeko : gure egoitza ahalmen urritasun egoeran diren pertsoneri egokitua da, gurekin harremanetan sar zaitez.
- Formakuntzan parte hartzeko : Ahalmen urritasun egoeraren arabera, formakuntza egokitzen ahalko dugu. Informazio gehiagorentzat edo/eta zure beharren berri emaitako, gurekin harremanetan sar zaitez

Argitasun gehiagorentzat : Mainer LARRIEU, 05 59 37 18 82

EGUTEGIA

Certiphytoa lehen aldikotz pasatu (« décideur en entreprise non soumise à agrément » kategoria)

2022ko urtarrilaren 12 eta 19an , EHLG-n (Ainiza Monjolose)	14 ordu, 2 egunez
--	-------------------

Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak : produktu fitosanitarioak erabiltzen dituzten laborarientzat eta banakako Certiphyto agiria lehen aldikotz pasatu nahi dutenentzat - onespenera gabeko enpresako erabakitzaileak.

Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : Parte-hartzaileak produktu fitofarmazeutikoen erabiltzearekilaran lotura duten arauen, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktuen eta metodo alternatiboaren inguruko ezagutzak eguneratu edo azkartuko ditu. Helburua da norberak bere produktu fitofarmazeutikoen ziurtagiria (Certiphyto) eskuratzea.

Egitaraua / edukia :

- Ingurumen-araua eta segurtasuna (4 ordu)
- Osasuna eta segurtasuna produktuak hedatzen dituztenentzat eta publikoari idekiak diren eremuentzat (4 ordu)
- Produktu fitofarmazeutikoen erabilera ttipitu eta metodo alternatiboak ezagutu (5 ordu)

Parte hartzaileen ezagutzak formakuntzaren bukaeran egiaztatuko dira hautu anitzeko galdeketa baten bidez (oren 1eko iraupena, 30 galdera).

Sargai guti galdegiten duen koltzaren ibilbide tekniko berritzailea menperatu

2022/01/18, 03/08, 08/10 eta 10/04an Nahi dutenentzat eta formakuntzan parte hartu izanez gero, 4 orduko bakarkako sesioa etxaldean.	14 ordu, 4 egun-erdiz
---	-----------------------

Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzailea sargai guti galdegiten dituzten kudeaketa-teknika berritzaileen plantan ezartzeko gai izanen da.

Egitaraua / Edukia : Formakuntza denboran, hauek izanen dira aipatuko diren gaiak : belar tzarrak, intsektuak eta koltzaren eritasunak ezagutu ; koltzaren garapen onarentzat luraren kalitatea behatzen ikasi ; koltza eta lekadunak elkartzeko teknikak ; koltzaren ongarriztatzea kudeatu ; biomasa pizatzeko metodoa ; belar tzarren kentzea kudeatu.

Ardi esnedun hazkuntzaz formakuntza zikloa

2021/10/21 eta 28, 02/16 eta 03/22an , EHLG-n (Ainiza Monjolose)	28 ordu, 4 egunez, 2021eko urria eta 2022ko martxo artean
---	---

Formatzaileak : Marina Deysine (hazkuntza produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2018-az geroztik) eta Fanny Auclair (hazkuntza produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2020-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzailea ardi hazkuntza zikloan izaiten ahal dituen zailtasunak identifikatzeko gai izanen da bai eta ere horien gainditzeko metodo eta tresnen ezagutza ukanen du.

Egitaraua / Edukia : Ardi esnedun hazkuntzan ari direneri (bereziki instalatu berrieri) zuzendutako formakuntza horretan, emaitza hobekuntza eta tresnak baita etxaldean hobekuntza konkretuak nola plantan ezarri aurkeztuak izanen zaizkie parte hartzaileeri. Artaldearen urteko zikloaren funtsezko faseetan oinarrituko da formakuntza hau (bazkatzea, erditzea, esnealdia eta arkaltzea).

- **2022/02/16, asteazkena** : erditzeak eta esnealdia gaien aipamena
- **2022/03/22, asteartea** : ardiak arditegitik ateratzea, pentzeetan ezartzea eta arkaltzea prestatzea gaien aipamena

Certiphytoa berritu (« *décideur en entreprise non soumise à agrément* » kategoria)

2022/02/22, asteartea , EHLG-n (Ainiza Monjolose) 2022/06/02, osteguna , EHLG-n (Ainiza Monjolose)	7 ordu, egun 1
---	----------------

Beste sesio batzu proposatuko ditugu 2022ko azken 6 hilabeteetan.

Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak : laborarientzat, oraino balio duen banakako Certiphyto agiriaren titularrak direnak, produktu fitosanitarioak erabiltzen dituztenak eta Certiphytoa berritu nahi dutenak - onespenerik gabeko enpresako erabakitzaileak.

Berritzea berantenez baliozkotasun epea pasatu baino 3 hilabete lehenago egin behar da.

Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : Parte-hartzaileak produktu fitofarmazeutikoen erabiltzearekidan lotura duten arauen, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktuen eta metodo alternatiboen inguruko ezagutzak eguneratu edo azkartuko ditu. Helburua da norbera bere produktu fitofarmazeutikoen ziurtagiria (Certiphyto) berritzeko gai izatea.

Egitaraua / edukia :

- Ingurumen-araua eta segurtasuna (2 ordu)
- Osasuna eta segurtasuna produktuak hedatzen dituztenentzat eta publikoari idekiak diren eremuentzat (2 ordu)
- Produktu fitofarmazeutikoen erabilera ttipitu eta metodo alternatiboak ezagutu (3 ordu)

Ahuntz haragia balioztatu

2022/03/02a, asteazkena, EHLG-n (Ainiza Monjolose)

7 ordu, egun 1

Formatzailea : Leire Atchoarena, "Marketing Management" ingeniaria, animatzaile teknikaria sailen animazio eta desmarta kolektiboen laguntzan, EHLGn 2017-az geroztik
Mintzalaria : Fanny Thuault, La Chèvre des Pyrénées elkarteko animatzailea

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileak ahuntz/pitika haragia balorizatzeko metodoak ezagutuko ditu haragi tailerrari lotu irabaziak hobetzeko.

Egitaraua / edukia : Formakuntza hau ahuntz/pitika haragia balorizatu nahi duten pitika/ahuntz hazle edo hazlegaiari zuzendua da. Sesio honetan, ondoko gai hauek landuko dituzue : karkasaren kalitatea ebaluatu, pitiken/ahuntzen hazkuntza metodoak ezagutu, existitzen diren salmenta zirkuituak, lekuko salbide eta tresnak (hiltegiak, transformazio tailerrak), zuzeneko salmentaren araudi berezia, salmenta prezioa nola finkatu eta irabazi gordinak kalkulatu. Azkenik, "Ahuntz/pitika-haragia" produktuaz hitz egiten baita bezeroak nola atxeman eta jarraikiarazi ikasiko duzue.

Hesien kudeaketa eta balorizazioa

2022/03/02 eta 03a, Hazparneko Elgar zentroan

7 ordu, 2 egun erdiz

Formatzailea : Thomas Tchiboukdjian, agro-oihangintza arloko teknikaria (EHLGn 2021-az geroztik)
Mintzalaria : Laurent Nevoux (Bois Bocage Energie elkarteko animatzailea)

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzailea hesien kudeaketa iraunkorraren printzipioak eta modalitateak ezagutzeko gai izanen da baita lekuko salbide desberdinak eta balorizazio sailak ezagutzeko.

Egitaraua / edukia :

➤ **2022ko martxoaren 2a, asteazkena, 14.00 / 18.00, Hazparne**

Hesien kudeaketa moldeak (oihangintza iraunkorraren printzipioak eta hesien kudeaketa ; mekanizazioa : zein tresna mota erabili ? ; Normandiako oihangintza sail baten egituratze adibidea).

➤ **2022ko martxoaren 3a, osteguna, 14.00 / 17.00**

Erabilpenak ezagutu, adibide konkretuak ikusiz etxalde batean : hesi baten kudeaketaz aholkuak, mozte xantier bat markatu, bolumena estimatu. Ondotik, plataforma tekniko baten bisita : zur-energia prozesuen erakustaldia (erabilpena, xehatzea, metatzea).

Izpindar proiektuaren sustenguz antolatua den formakuntza da.

Garingintza eta hostoetan lotzen diren gaitzen kudeaketa

2022/03/17an, osteguna eta 04/19an, asteartea

7 ordu, 2 egun erdiz

Etxalde batean (zehaztekoa)

Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : ogia egiteko garia ekoizteko manera berritzaileak apaituko dira Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatzen duen Vivea formakuntza huntan

Egitaraua / edukia : Egun erdi hauetan aipagaiak hauek izanen dira : garigintza teknikoki menperatu, ibilbidearen hein garrantzitsuenak ezagutu, eritasunak ezagutu eta kudeatu (metodo alternatiboak, berritzaileak eta tratamendu heina), tokiko traba bereziera moldatu, bilan ekonomikoa.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, laborariak formatzen eta jarraitzen ditu azken 17 urte hauetan

Gure formakuntza eta egunaldi tekniko guziak linean dira :

www.ehlgbai.org

Gure berripaperari harpidetu

Gure aktualitate eta formakuntza eskaintza zure e-mezutegian zuzenki

Harpidetzen naiz **HEMEN**